



CAMARA DE GIPUZKOA
GIPUZKOAKO BAZKUNDEA



LANKIDETZA HITZARMENA

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO
OROKORRAREN,**

DONOSTIAKO UDALAREN,

**GIPUZKOAKO MERKATARITZA, INDUSTRIA ETA
NABIGAZIOKO GANBERAREN**

ETA

**DONOSTIAKO HIRIKO MERKATARITZAGUNEEN
ELKARTEAREN (“SSHOPS DONOSTIA”) ARTEKOA**

**“DONOSTIAKO HIRIKO MERKATARITZAGUNEETAKO
GERENTEAK”**

PROGRAMA GAUZATZEKO.

Donostia, 2013ko abenduaren 10a

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN, DONOSTIAKO UDALAREN, GIPUZKOAKO MERKATARITZA, INDUSTRIA ETA NABIGAZIOKO GANBERAREN ETA DONOSTIAKO HIRIKO MERKATARITZAGUNEEN ELKARTEAREN (“SSHOPS DONOSTIA”) ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA “DONOSTIAKO HIRIKO MERKATARITZAGUNEKO GERENTEAK” PROGRAMA GAUZATZEKO.

Donostia, 2013ko abenduaren 10a

BILDU DIRA

BATETIK, ARANTZA TAPIA OTAEGI andrea, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua.

BESTETIK, JUAN CARLOS IZAGIRRE HORTELANO, Donostiako Udaleko alkate-udalburua.

BESTETIK, PEDRO ESNAOLA LATASA, Gipuzkoako Merkataritza, Industria eta Nabigazioko Ganberaren presidentea.

BESTETIK, ESTEBAN GONZÁLEZ BASTIDA, Donostiako Hiriko Merkataritzaguneen Elkartearen (“Sshops Donostia”) presidentea.

ESKU HARTU DUTE:

Lehenak Euskal Autonomia Erkidegoko Administraziooko Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburu gisa eta haren legezko ordezkari lanetan jardunez, horretarako baimena eman baitio Jaurlearitzaren Kontseiluak 2013ko abenduaren 10ean egindako bilkuran.

Bigarrenak, Donostiako alkate-udalburua denez, Udal horren legezko ordezkari gisa.

Hirugarrenak, Gipuzkoako Merkataritza, Industria eta Nabigazioko Ganberaren presidente gisa.

Laugarrenak, Donostiako Hiriko Merkataritzaguneen Elkartearen (“Sshops Donostia”) presidente gisa

Hitzarmenkodeek elkarri aitortu diote legezko gaitasun nahikoa dutela lankidetzaren hitzarmen hau izenpetzeko eta horretarako honako hau

ADIERAZTEN DUTE

- I. Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren Merkataritza Plan Estrategikoak jardun-ildo estrategikoak ezartzen dituela, merkataritza-eremuan, merkataritza garatzen den hiri-eremua hobetzeko Espazio eta Lurralde Lankidetzako politikak, besteak beste. Jardun-ildo horren barnean daude, batetik, Hiria Indarberritzeko Planak, eta, bestetik, udalerrietako merkataritza-jarduera indarberritzeko eta hiri-inguruneei balioa emateko

tresnak abian jartzea hainbat arlo landuz, hala nola, honako hauek: merkataritzaren eta turismoaren sustapena, segurtasuna, urbanismoa, trafikoa, bide publikoa, mantentzea, garbitasuna eta abar. Guztiak hirigunearen merkataritza-banaketaren sektorea hartzen dute eraginpean, eta inplikaturako erakunde publikoek zein pribatuek garapenean eta finantzaketan duten lankidetzaz biazian oinarrituta daude.

Ildo horretan, beharrezkoa da udal-eremuko lankidetzaz-akordioei eustea; akordio horiek lankidetzaz publiko eta pribatua eta eremuko estrategien garapena sustatzera bideratuta egongo dira, hiriko hirugarren sektore guztia eraginpean hartuko duten hainbat jardueraren bitartez; hartara, dinamika eraldatzaileak sustatuko dira eta indarberritu beharreko inguruneei balioa emango zaie, eta baita dauden baliabideak egoki erabili ere.

- II. Hitzarmen hau sinatzen duten erakundeek egokitzat jo dute aurrez deskribaturako dinamiken garapenari bultzada ematea, baita lan-gero egokiak sortzea ere, Donostiako udal-ingurunean enpresalankidetzaz eta merkataritza-indarberritzeaz ahalbidetzeko. Horren haritik, hiriko merkataritzaguneetan profesionalak bildu behar direla uste dute, eta profesional horiek hiriko merkataritzaguneetan esku hartzen duten eragile ekonomiko eta sozial, pribatu eta publiko guztien kudeaketa estrategikoan, sustapenean eta zuzendaritzan jardun behar dutela, integratua eta diziplina anitzekoa den ikuspegi bati jarraiki. Hortaz, profesional horiek proiektu original, sortzaile, eraginkor eta lehiakorrak sortzeko eta kudeatzeko gaitasuna izan behar dute, horiek errealitate bihurtu daitezkeen. Hori guztia Hiriko Merkataritza Plataformaren esparruan, deskribaturako helburuak abian jartzeko eta garatzeko beharrezko tresna gisa.
- III. Beharrezkoa dela, epe ertain eta luzera, finantzaketa-ildoko egokiak ezartzea proiektua kudeatzeko, eta horretan, modu progresiboan, parte hartu behar dutela hiria ekonomikoki eta sozialki indartzeko interesa duten eragile eta erakunde guztiek eta, horrenbestez, finantzaketarako hiriaren eta enpresa-sektorearen artean lankidetzaz-egitura publiko-pribatua ezarri behar dela, behin-behinerako, hau da, autonomia ekonomikoa lortu bitartean, hala

bermatuko baita proiektua bideragarri izango dela partaidetzaren eta eraginkortasunaren ikuspegitik.

- IV. Biztanle-kopuruari (150.000 biztanle baino gehiago) eta merkataritza-establezimenduen kopuruari (ez 2.500 baino gutxiago) dagokienez, proiektu hau garatzeko ezarritako irizpideek eraginda, proiektua garatzeko helburuarekin ezartzen dela Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuen artean hitzarmenak egitea.
- V. Hori ikusirik, eta Donostiako Hiriko Merkataritzagunea garatzen jarraitu behar dela kontuan hartuz, abian jarritako ildoak finkatu ahal izateko, lankidetzeta-hitzarmen hau sinatu behar da.

Aurreko guztiarekin ados daudela adierazteko eta konpromisoak behar bezala bideratzeko, esku hartzen duten alderdiek hitzarmen hau formalizatu dute honako hizpaketa hauen arabera:

HIZPAKETAK

LEHENENGOA.- *Hitzarmenaren Xedea.*

Hitzarmen honen xedea da hitzarmenean esku hartzen duten alderdi guztien lankidetzeta-esparrua ezartzea, Hiriko Merkataritza-plataforma Donostiako Hiriko Merkataritzagunea kudeatzeko tresna gisa garatu eta finkatzeko.

BIGARRENA.- *Programaren Helburuak.*

Donostiako Hiriko Merkataritzagunearen Gerentzia modu honetan eratu da: plangintza egiteko, koordinatzeko eta dinamizatzeko tresna gisa. Gerentzia horrek gure hiriko merkataritza-ehun tradizionala aparteko merkataritzagune gisa garatzea ahalbidetuko du, modu horretan hiri-inguruko banaketa-formulekin lehiatu ahal izateko. Azken batean, gertuko merkataritzari itxura eraginkorra emango dion

eta gure hiriburuetakoko hiri-sarean behar bezala txertatuta egongo den tresna erabilgarri bat finkatu nahi da. Helburu hori hirugarren sektoreko estrategietan gauzatu behar da, zeinak inguruko lankidetzakintzetan oinarriturik egon behar duen, inguruneak eskaintzen dituen zonako edo sektoreko aukerei balioa emateko; horren ondorioz, ingurune horretako posizionamendua hobetuko da eta ingurunearen kudeaketa profesionalizatua bermatuko da.

Honako hauek dira programaren funtsezko helburuak:

- Hiriko Merkataritzagune sendo eta finkatua lortzea, hiriko merkataritza-jardueraren eta sustapenaren funtsezko elementua delako.
- Hiriko Merkataritzaguneak merkataritza-erreferentzien abangoardian ezartzera zuzendutako estrategiak garatzea.
- Plan ekonomiko bat sortzea, epe laburrera, merkataritza-plataforma autofinantza dadin.
- Hiriko Merkataritzagunea etengabe dinamizatzea eta sustatzea.
- Gerentzia globalizatzailea izatea.

HIRUGARRENA.- Alderdien konpromisoak.

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren bitartez, honako konpromiso hauek hartu ditu bere gain:
 - a) Gerentzia-taldearen kontratazio-gastuak ordaintzeko diru-laguntza eskaintzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan behar besteko kreditua badago, eta laguntza eskumendun organoak ematen baldin badu. Gerentzia-taldea gerente batek eta administrari batek osatuko dute, hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean, diru-muga hauek jarrita:

Lehenengo urtebeteko aldiaren zehar, aurreko lankidetzakintzaren hitzarmena amaitzen denetik, hau da, 2013ko apirilaren

30etik 2014ko apirilaren 29ra bitartean: gerentzia-taldearen kontratazio-gastuen % 90eko diru-laguntza izenduna gehienez ere, 87.000,000 euro urtean.

Diru-kopuru hori Donostiako Hiriko Merkataritzaguneen Elkarteari (“Sshops Donostia”) ordainduko zaio hiru ordainketatan: lehen, 36.375,00 eurokoa, hitzarmen hau sinatzen denean ordainduko da, eta gerentzia-taldearen lan-kontratuaren kopia eta Jarraipen-batzordeak onartutako Urteko Ekintza Planaren kopia aldeztu aurretik aurkeztuta.

Bigarren ordainketa, 36.375,00 eurokoa, 2014ko otsailaren 15a baino lehen ordura arte burututako jardueren laburpena eta izandako gastuen frogagiriak aurkeztu ondoren ordainduko da. Dokumentazio hori Jarraipen-batzordearen Aktan aztertu eta osatuko da, eta beti dagokion urtearen abenduaren 31 artekoko gerentziaren jarduerari dagokiona izango da.

Gainerako zenbatekoa, berriz, Jarraipen-batzordeak onartutako dagokion aldiko gerentzia-taldea kontratatzeagatiko eta gerentzia-jardueragatiko gastu guztiak justifikatu ondoren ordainduko da.

Hurrengo urteetarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretarako esleitutako kreditua baldin badago, eta eskumena duen organoak, berriaz, ematen baldin badu, diru-laguntza 90.000,00 eurokoa izango da ekitaldi bakoitzean.

Hitzarmen hau sinatu ondorengo ekitaldietan, diru-laguntza eman ondoren, eta aurrez gerentzia-taldearen lan-kontratuak aurkeztuta, lehenengo ordainketa diru-laguntzaren zenbatekoaren %37,5koa izango da.

Bigarren ordainketa, diru-laguntzaren %37,5koa, urte bakoitzaren otsailaren 15a baino lehen, ordura arte burututako jardueren laburpena eta izandako gastuen frogagiriak aurkeztu ondoren ordainduko da. Dokumentazio hori Jarraipen-batzordearen Aktan aztertu eta osatuko da,

eta beti dagokion urtearen abenduaren 31 arteko gerentzia-jarduerari dagokiona izango da.

Gainerako zenbatekoa, berriz, Jarraipen-batzordeak onartutako dagokion aldiko gerentzia-taldea kontratatzeagatiko eta gerentzia-jardueragatiko gastu guztiak justifikatu ondoren ordainduko da.

- b) Gerentziak zehaztutako eta hitzarmen honen hurrengo hizpaketan sortutako Jarraipen-batzordeak onartutako jardun-proposamenen ondorioz udalerrian egin beharreko jardueren garapena eta Hiriko Merkataritza Plataformaren garapena bultzatzea, saileko programa desberdinen bitartez.
- c) Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan behar besteko kreditua badago 2014ko ekitaldian, eta eskumendun organoak ematen badu, Donostiako Udalari %50eko diru-laguntza ematea, gehienez ere 20.000,00 euro, hiriko merkataritza-plan estrategikoa burutzeko, Donostiako merkataritza-plataformarekin elkarlanean.

Diru-laguntza-hori, bi alditan ordainduko zaio, lehenengoa, planaren esleipenaren %20, 4.000,00 eurora arte, plana egiten hasterakoan, kontratazio-esleipenaren dokumentuak eta bere baldintzak aurkeztu ondoren, Jarraipen-batzordeak egindako planaren onespun-aktarekin batera. Gainerako zenbatekoa, Jarraipen-batzordeak onartutako plana burutzerakoan sortutako gastuen frogagiriak eta planaren ale bat jatorrizko formatuan eta euskarri magnetikoan aurkeztu ondoren ordainduko da.

Dokumentu honi gehitutako eranskinean azterketak izan behar dituen berezko gutxieneko zehaztapenak biltzen dira, hiriaren ezaugarriak kontuan hartuz.

Merkataritza Zuzendaritzak izango du diru-laguntza kudeatzeko ardura.

2. Donostiako Udalak honako konpromiso hauek hartu ditu:

- a) Donostiako Udalak Donostiako Sustapenaren bitartez diseinatutako programen laguntzaz tokiko hiri-merkataritzaren profesionalizazioa eta bertako lehiaren hobekuntza sustatzea.
- b) Hiri Merkataritzako Plataformarekin lankidetzan aritzeko hitzarmen bat sinatzea, merkataritza dinamizatzeko eta profesionalizatzeko; horretarako, 65.000,00 euro jarriko dira; kopuru hori gehitu egin daiteke beste ekarpen bat eginda, zeina ez den beti berdina izan behar, baina bai, gehienez ere, 30.000,00 euro.
- c) Donostiako Sustapenak sektorerako sustatzen dituen programen eta suspertzeko eta berrikuntza lehiatsurako estrategien arabera ezarriko da zenbateko aldakor hori.
- d) 2014ko ekitaldian, eta azaroaren 30a baino lehen, hiriko merkataritza-plan estrategikoa burutu eta finantzatzea. Plana Donostiako merkataritza-plataformarekin lankidetzan garatuko da.

Eusko Jaurlaritzak azterketa lagundu duela jasota uztea, bai azterketatik sortzen diren dokumentu guztietan, bai egiten diren azterketaren aipamen eta erreferentzia guztietan.

3. Gipuzkoako Merkataritza, Industria eta Nabigazioko Ganberak honako konpromiso hauek hartu ditu:

- a) Hitzarmen honen Jarraipen-batzordearen idazkaritza teknikoko eginkizunak betetzea.
- b) Batzordeak onartutako Urteko Ekintza Planean jasotako jardueren jarraipena erraztea, eta, horretarako, batzordeak berak ezarritako adierazleak bete diren jakiteko txosten bat egitea, planeko helburuak aurreikusitako eran bete daitezen.
- c) Gerentziari laguntzea, Gipuzkoako Merkataritza, Industria eta Nabigazioko Ganberak kudeaketari balioa eransteko gaitasuna duen jarduera-eremuetan. Horretaz gain, Ganberaren Merkataritza-eremuak hiriko merkataritza sustatzeko egiten

dituen jardueretarako eta proiektuetarako lehentasunezko sarbidea emango dio gerentziari.

4. Donostiako Hiriko Merkataritzaguneen Elkarteak (“Sshops Donostia”) honako konpromiso hauek hartu ditu:
- a) Hiriko Merkataritzagunearen gerentzia-taldea kontratatzea, lankidetzeta-hitzarmen honek irauten duen aldirako.
 - b) Urteko Ekintza Plan bat diseinatzea, lantzea eta bultzatzea, oro har Donostiako hiriko merkataritza-jarduera sustatzera bideratutako jarduerak, eta, bereziki, Jarraipen-batzordeak onartutako jarduerak barnean hartuz. Planak honako eduki hau barne hartu behar du gutxienez:
 - Dagokion aldiko gerentzia-taldea kontratatzeko izan diren gastu-aurrekontuaren laburpen-koadro banakatua.
 - Dagokion aldirako Urteko Ekintza Planari buruzko proposamena, honako hau zehaztuz:
 - o Aldiko memoria
 - o Laburpen-taula, jarduera bakoitzean hauxe zehaztuz:
 - Lortu nahi diren helburuak.
 - Hitzarmen hau sinatu dutenek diruz lagundutako Donostiako hiri-merkataritza sustatzeko ekintzak.
 - Ezarritako helburuak lortu diren neurtzeko adierazleak.
 - Egutegia.
 - Aurrekontua.
 - Finantzaketaren jatorria.
 - Ekitaldi honetako aurrekontu orekatuaren laburpena.

- c) Amaitutako Urteko Ekintza Plan bakoitzaren ebaluazioa aurkeztea. Ebaluazio horrek informazio hau jasoko du gutxienez:
- Aurreko aldiko gerentzia-taldea kontratatzeke izan diren gastuen laburpen-taula.
 - Gerentzia-taldeko nominen eta talde hori kontratatzeke izan diren gastuen agiri guztien kopia, bai eta ordaindu direla adierazten duten frogagiriak ere, eta ordainketa orokorrak badira, kontratu bakoitzari dagozkion zenbatekoen kalkulua.
 - Aurreko aldiko aurrekontu-itxieraren laburpena.
 - Laburpen-taula, honako hau zehaztuz:
 - Ekintza bakoitzean lortutako helburuak.
 - Hitzarmen hau sinatu dutenek diruz lagundutako Donostiako hiri-merkataritza sustatzeko burututako ekintzak.
 - Ezarritako helburuen betetze-adierazleak.
 - Egutegia.
 - Aurrekontua.
 - Finantzaketaren jatorria.
 - Aldiko memoria

Dokumentazio hau batzordekideei batzordeko bilerak egin baino, gutxienez, 7 egun lehenago bidaliko zaizkie, laugarren hizpaketan ezarritakoaren arabera.

- d) Hiriko Merkataritza Plataformaren berezko helburu gisa, finantzaketa-sistema bat ezartzea; sistema horrek Hiriko Merkataritza Plataformaren urteko aurrekontuaren % 10 izan behar du, gutxienez, eta geroago garatzen jarraituko du, hitzarmen honen eranskinean bildutako merkataritza-planaren ezarpenaren arabera.

Hiriko Merkataritza Plataformak hemen ezarritako laguntza-erregimenari lotutako betebeharrak gauzatzen ez baditu, hitzarmen honen zazpigarren klausulan ezarritakoa bazter utzi gabe, eta betebeharra gauzatu ez dela adierazten duen espedientea aurkeztu ondoren, emandako diru-laguntzaren zati bat edo diru-laguntza osoa baliogabetuko da, eta jasotako zenbatekoak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko dizkio, betiere abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateratuaren 53. artikuluan ezarritako baldintzen arabera. Adierazitako legea azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartu zuen.

Hiriko Merkataritza Plataforma emandako laguntzaren onuraduna denez, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateratuaren 50. artikuluan onuradunaren betebeharrei buruz ezarritakoa aplikatuko zaio. Adierazitako Legea azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bitartez onartu zen.

LAUGARRENA.- Jarraipen-batzordea.

Hitzarmen honi jarraipena egin eta berau kontrolatzeko honako hauek osatutako batzorde bat eratu da:

- Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko ordezkari bat.
- Donostiako Udaleko ordezkari bat.
- Gipuzkoako Merkataritza, Industria eta Nabigazioko Ganberako ordezkari bat.
- Donostiako Hiriko Merkataritzaguneen Elkarteko (“Sshops Donostia”) ordezkari bat.

Hitzarmen hau sinatu duen erakunde bakoitzeko pertsona bat baino gehiago egotea (hitzarekin baina botorik gabe) balioetsiko du batzordeak.

Batzordeko kide diren erakundetako ordezkariak txandaka beteko dituzte batzordeko presidentearen eta presidenteordearen karguak. Hala, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko ordezkaria izango da presidentea hitzarmen hau indarrean dagoen lehenengo urtean, eta Donostiako Udaleko ordezkaria, berriz, presidenteordea izango da, kargu horiek hurrengo ekitaldian aldatuz eta horrela bata bestearen ondoren. Presidentetza hutsik badago, arduraduna ez badago, gaixo badago edo legezko beste arazoirenen bat badago, presidenteordeak bere gain hartuko ditu presidentearen eginkizunak.

Idazkaria Gipuzkoako Merkataritza, Industria eta Nabigazioko Ganberako ordezkari izango da.

Jarraipen-batzordea osatzen duten erakundeen ordezkariak honako boto kopuru honen arabera zehaztuko da:

- Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak: boto 1
- Donostiako Udalak: boto 1
- Gipuzkoako Merkataritza, Industria eta Nabigazioko Ganberak: boto 1
- Donostiako Hiriko Merkataritzaguneen Elkarteak (“Sshops Donostia”): boto 1

Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legeak kide anitzeko organoei buruz xedatutakoaren arabera zuzenduko da Jarraipen-batzordea. Hala, presidenteak, organoa ordezkatzeko gain, bileretarako deia egin, bilerak zuzendu eta gai-zerrenda ezarriko ditu, eta berdinketak ebatziko ditu bere botoa erabilita, erabakiak har daitezten.

Jarraipen-batzordeak Urteko Ekintza Plana ebaluatu eta onartu, Urteko Ekintza Planaren burutzapenaren jarraipena egin eta, hala balegokio, hurrengo aldiko Urteko Ekintza Plana onartzeko beharrezko bilera guztiak egingo ditu. Horretaz gain, ez ohiko bilerak ere deitu ditzake presidenteak, egoki irizten dionean.

Jarraipen-batzordeak honako eginkizun hauek bete beharko ditu:

- Kontratatatu beharreko gerentzia-taldea hautatzea eta Hiriko Merkataritza Plataformari proposatzea
- Hiriko Merkataritzaguneen gerentziak proposatutako Urteko Ekintza Plana baliozkotzea. Planean jarduerak modu espezifikoan eta bere gain hartzeko moduko helburuak dituztela aurkeztu behar dira, kopuruak zehaztuta. Horretaz gain, jarduerak neurtzeko modukoak eta denboran mugatuak izan behar dute, kostua eta bilakaera kontrola daitezten.
- Gerentziak proposatutako Urteko Ekintza Planaren barruan garatu beharreko jardueren programa baliozkotzea. Programa horretan bilduko dira, batetik, Donostiako hiri-merkataritza irekia oro har sustatzera bideratutako jarduerak, eta, bestetik, eta bereziki, hitzarmen honetan aurreikusitako eta hitzarmen hau sinatu dutenek diruz lagundutako jarduerak (Jarraipen-batzordeak onartuak).
- Hitzarmen honen ondoriozko ekintzen planei eta aurrekontuei jarraipena egitea eta horiek kontrolatzea.
- Urteko Ekintza Planaren bete dela ebaluatu eta onartzea.
- Hitzarmen honen helburuak lortzeko esku hartzen duten erakundeak koordinatzea.
- Egindako bilera guztien akta egitea eta aktak batzordeko kide guztiei bidaltzea.

BOSGARRENA.- Hartutako konpromisoak bete direla justifikatzea.

Hitzarmen honetan parte hartzen duen alderdi bakoitzak Jarraipen-batzordeari egiaztatu beharko dio hartutako konpromisoak betetzen direla.

Jarraipen-batzordeak, berriz, kasuaren arabera, agiri hauek aurkeztu behar dizkio Eusko Jaurlaritzaren Merkataritza Zuzendaritzari, dagokion plataformaren bidez, hitzarmen hau sinatu eta gehienez ere hilabeteko epean:

- Hitzarmen hau edo ondorengo luzapenak sinatu zirenetik:
 - o Gerentzia-taldea kontratatzea onesten duen sinatutako aktaren kopia.

- Gerentzia-taldearen kontratuaren kopia konpultsatua.
 - Urteko Ekintza Planaren proposamena.
 - Hala balegokio, hitzarpenaren luzapen-eskaera.
- Jarraipen-bileren ondorioz:
- Sinatutako aktaren kopia.
 - Urteko Ekintza Planaren betetze-egoera, eta horren arabera, planari proposatutako aldaketak.
- Hitzarmen honen aldi bakoitza amaitzean:
- Dagokion Urteko Ekintza Planaren betearazpena onesten duen sinatutako aktaren kopia.
 - Dagokion aldiko Urteko Ekintza Planaren betetze-mailaren ebaluazioa.

Hala badagokie, lankidetzeta-hitzarmen hau sinatu duen erakunde bakoitzak hiriko merkataritzagunea dinamizatzeko eta kudeatzeko proiektuaren esparruan udalerrian egingo dituen jardueri buruz Donostiako Hiriko Merkataritzaguneen Elkartearekin (Sshops Donostia) izenpetutako lankidetzeta-hitzarmenaren kopia aurkeztu behar dio Jarraipen-batzordeari.

Aurretik adierazitako dokumentazio guztia Jarraipen-batzordearen bilera bakoitza egin eta hilabete igaro baino lehen aurkeztu behar da.

SEIGARRENA.- *Publizitatea.*

Donostiako Hiriko Merkataritzaguneen Elkarteak (“Sshops Donostia”) argi eta garbi adieraziko du hitzarmena zer erakundek finantzatu duten, egiten dituen komunikazio edo proiektuaren aurkezpen publiko guztietan, bai eta hitzarmen hau sinatu duten erakundeek berariazko laguntza ematen diotela ere.

Halaber, Donostiako Hiriko Merkataritzaguneen Elkarteak (“Sshops Donostia”) konpromisoa hartzen du proiektu orokorra aurkezten denean komunikabideetan argitaratutako artikulua eta

elkarrizketetan proiektuaren inguruan erakundeen artean izandako lankidetzaz adierazteko.

Donostiako Hiriko Merkataritzaguneen Elkarteak (“Sshops Donostia”) erakunde eskatzaileei jakinaraziko die Kudeaketa Planean bildu ez diren jarduera guztien aurreikuspena, jarduera horren deialdia egin aurretik.

Donostiako Hiriko Merkataritzaguneen Elkarteak (“Sshops Donostia”) argi eta garbi jarri beharko du hitzarmen honetako ekintzak direla medio egiten edota hedatzen diren programen aleetan, karteletan, argazkietan eta gainerako baliabideetan edo material idatzian jarduera horiek zer erakunde lagundu dituzten diruz (material hori guztia Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan argitaratu behar da); horretaz hain, hitzarmen hau sinatu duten erakundeen babesaren erantzule izan dela jaso beharko da argi eta garbi. Orobat, memoriarekin batera, hitzarmen honetako jarduerak direla medio sortzen den liburu, txosten, liburuxka, kartel edo beste mota bateko dokumentazio bakoitzaren ale bat edo horien kopia bat, euskarri fisikoan edo magnetikoan (betiere bakoitzaren izaeraren arabera, edo batoren edo bestearen egokitasun handiagoaren edo txikiagoaren arabera) bidali beharko du diru-laguntza ematen duten erakunde guztietara.

Azkenik, hala badagokio, Hiriko Merkataritza Plataformaren Informazio Buletinean jasoko da hitzarmen hau sinatu dela, eta presentzia esanguratsua emango zaio.

ZAZPIGARRENA.- *Ez-betetzea.*

Donostiako Hiriko Merkataritzaguneen Elkarteak (“Sshops Donostia”) hitzarmen honetan ezarritako betebeharrak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauerei buruzko Legearen Testu Bategina onesten duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.2. artikuluan ezarritakoak betetzen ez baditu, ez-betetze espedientea zabaldu, eta emandako diru-laguntzak

baliogabetu egingo dira zati batean edo guztiz, eta itzuli egin beharko dizkio jasotako kopuruak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritako moduan.

Hitzarmen hau sinatu duten alderdietako batek bertan azaltzen diren klausulak betetzen ez baditu, hitzarmena indargabetu egin daiteke, Jarraipen-batzordearen gehiengoak hori egin behar dela adierazten badu, eta ez-betetze hori egin duena hitzarmen honetatik kanpo geratzea eragin dezake.

Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatzen badira, eta nolanahi ere beste administrazio batzuek edo erakunde publiko zein pribatuek aldi berean emandako laguntzak nahiz diru-laguntzak lortuz gero, eta helburu horietarako edonolako diru-sarrerak edo baliabideak eskuratuz gero, baliteke diru-laguntza emateko ebazpena aldatzea, baldin eta laguntzaren onuradun izateko gutxieneko eskakizunak betetzen badira.

Diru-laguntzaren zenbatekoak —beste administrazio publiko batzuek edota estatuko zein nazioarteko erakunde pribatu nahiz publikoek emandako laguntza eta diru-laguntza ororekin batera— ezingo du gainditu onuradunak egingo dituen jardueren kostua. Horrelakoren bat gertatuz gero, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak emandako laguntzari kenduko zaio gehiegizkoari dagokion zenbatekoa.

ZORTZIGARRENA.- Izaera.

Hitzarmen honek administrazioko izaera du, eta Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailari dagokio edukia interpretatzea aurreko klausuletan zehazki adierazi gabeko kasuetan.

BEDERATZIGARRENA.- Indarraldia.

Hitzarmen hau sinatzen den egunean jarriko da indarrean, eta 2013ko apirilaren 30etik 2014ko apirilaren 29ra bitartean izango ditu ondorioak. Hitzarmenaren alderdiren batek berariaz jakinarazi ezean, urtero beste urtebetez luzatuko da, tazituki, gehienez hiru urte gehiago,



CAMARA DE GIPUZKOA
GIPUZKOAKO BAZKUNDEA



betiere Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan behar besteko kreditua badago, eta diru-laguntzak eskumendun organoak ematen baditu.

Eta dokumentu honen klausuletan bildutako zehaztapenekin ados daudela adierazteko, bertaratuek dokumentu honen lau ale sinatu dituzte goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

ARANTZA TAPIA OTAEGI

**JUAN CARLOS IZAGIRRE
HORTELANO**

**Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren
Garapen eta Lehiakortasuneko
sailburua**

Donostiako Udaleko alkate-udalburua

PEDRO ESNAOLA LATASA

ESTEBAN GONZÁLEZ BASTIDA

**Gipuzkoako Merkataritza,
Industria eta Nabigazioko
Ganberaren presidentea**

**Donostiako Hiriko Merkataritzaguneen
Elkarteen (“Sshops Donostia”)
presidentea**